


LISBOAKO SETIOAREN HISTORIA

JOSÉ SARAMAGO

JON ALONSO



elkar

URREZKO BIBLIOTEKA

HITZAURREA

Idazlea

José Saramago (1922-2010) Portugaleko Azinhaga herrian jaio zen. Gazterik hasi zen bere obra literarioa idazten, urratsez urrats, adreiluz adreilu eraikitzen den etxea balitz bezala, bizimodua aurrera ateratzeko hainbat lanetan ziharduenarekin batera; 1998. urtean bere ibilbide literario luze eta oparoa sari-tu zuten, urte hartan Nobel saria irabazi zuelako. Harrezkero José Saramago mundu guztian egin zen ezaguna.

Aho batez onartzen den idazle handia izanagatik, José Saramago, batez ere, gizona zen, eta gizona zen aldetik, ez zuen inoiz gizakiak eta mundua inarrosten dituzten arazoen aurrean bere burua ezkutatu.

José Saramagoren obra

Saramagoren obraren ezaugarriren bat azpimarratu behar-ko bagenu, ezaugarri hori koherentzia izango litzateke. Bere bizitzaren azken hogeita hamar urteetan idatzi zituen nobelak behiala ernatu zen proiektu literario erraldoi baten fruituak izan ziren. Saramagoren nobela bakoitza autonomoa da, gainerakoekin zerikusirik ez duena, itxuraz, eta hala ere, hari fin

batek elkarlotzen ditu guztiak, halako moldez non denak elkarren osagarri direla esan daitekeen, bere obrak, multzo bezala hartuta, esanahi orokorragoa eta osatuagoa erdiesteraino. Batek ez du entzun Saramagok esateko duen den-dena bere nobela guztiak irakurri arte, eta *puççõlea* osatu duelarik aurkituko duena munduari eta gizakiari buruzko gogoeta oso eta sakona da. Gizakiaren gaineko beste ikuspegi bat, nolabait esan. Honela laburbil litekeena: gizabanakoak, banan-banan harturik, izen trukagarritzko itzal hutsalak dira, eta multzoan bildurik, espezie kategoria harrapatzen dutenean baizik ez dira benetan garrantzizkoak. Gizakia munduko gainazalean itsumandoka dabilen espeziea baizik ez da. Agian horregatik, haren obra ezagutzen duenak ikara txiki bat sentitzen du bizitzaren amaieran egin zituen aldarri ezkorrak gogoratzen dituenean.

Saramago kezkatzen zuten gai nagusiak bere nobela guztietan daude, baina nobela bakoitzak gai horietako bat izaten du ardatz. Poetaren, idazlearen eta are artistaren engaiamendua –bai bere arteari buruz, baita bizi den gizarteari buruz ere– litzateke *Manual de Pintura e Caligrafia* (1977) izenekoaren ardatza; *O Ano da Morte de Ricardo Reis* (1984) nobelak, bere aldetik, aurreko gai hori erabat alde batera utzi gabe, tradizio literarioari buruzko kezka oso kontuan hartzen du; *O Evangelho segundo Jesus Cristo* (1991) liburuak Saramagok erlijioarekin, eta batez ere erlijioaren erabilera lo-eragingarri eta alienantearekin duen kezka biziari buruz jarduteko balio izan zuen; *Ensaio sobre a Cegueira* (1995) gizakion arimaren gaineko azterketa zorrotza da; *Todos os Nomes* (1997), gure izatearen hutsalaz ari da... Eta honela segi genezake bere nobeletako bakoitzarekin, azkenean konturatzeko guztietan agertzen direla idazlearen gai nagusien aztarnak, batzuetan apunte txikien moduan, ereindako haziak bailiran; hurrengo batean lore, zuhaitz, fruitu

bihurtuko diren haziak. Edo, beste batzuetan, aurreko liburu batean landaturiko lorategia osatu eta biribilduko duten lore berriak bailiran.

Gaien ikuspegitik Saramagoren nobelagintza koherentea baldin bada, beste hainbeste esan daiteke bere idazkera edo estiloari buruz. Aipatu *Manual de Pintura e Caligrafía* hartan jada antzematen dira Saramagoren idazkeraren ezaugarri nagusiak diren joritasuna eta perpausa bihurritzeko joera, baina oraingoz, nolabait esan, bide baten hasieran gaudela konturatzen gara, egileak bide hartan barneratu ahala erdietsiko zituen lorpenen iragarkia balitz bezala. Esan liteke 1980-90 urteen artean idatzi zituen nobeletan harrapatu zuela estilo horrek bere gailurra sofistikazioari eta inplizituki zeuzkan ahalbideen garapenari dagokienez; hortik aurrera idatzi zituen nobeletan, aldiz, estilo oparo eta emankor horren dekantazio moduko bat antzematen da, soiltze aldera egindako ahalegin bat, baina estilo horren nortasun-agergarri funtsezkoenak galdu gabe, noski; horretan ikusten da, hogeita hamar bat urteko epean, Saramagoren idazkerak ziklo oso bat bete zuela.

Lisboako Setioaren Historia idazlearen obraren barruan

Orain eskuen artean duzun *Lisboako Setioaren Historia* hau 1989koa da; Saramagoren idazkeraren dirdirak gaina jotzen duen garaiko liburua duzu. Perpausak kadentzia baten arabera txirikordatu eta lotzeko gaitasunak su-festa baten antzera egiten digu eztanda begien aurrean, baina gaitasun hau bi aldiz mirestekoa da, ahalegina ez baitago asmo nartzisista baten menpean, kontatzeko tekniken eraberritzearen alde dagoen ber; liburu honetan ongi agerian gelditzen dira Saramagoren estiloaren aurkikuntzarik onenak, hala pertsonaien

arteko elkarriketak lotzeko modu berezia, nola koma xume eta soil baten bidez zortzi mendeko jauzia egin ahal izatekoa, halako moldez non irakurlea Saramagok proposatzen dituen bi historien artean –bata orain mende asko gertatzen dena, setio garaian, alegia, bestea gaur egun gertatzen dena– kulunkatzen baita, nobelako pasarte jakin batera zer bide ezkututatik eraman duten konturatu ere egin gabe, denborari buruzko konbentzio guztiak puskatu baitira, denbora bera nahi duen aldera –eta ez beti aurrera– mugitzen den dimentsioa dela iradokitzeraino. Lisboako Setio honen bertuosismo teknikoa tesi asko eragiteko modukoa da, dudarik gabe.

Gaiari dagokionez, Historia da idazle portugaldarrak aztergai aukeratzen duena. Historiaren transgresioaren istorioa da *Lisboako Setioaren Historia*. Historia literatura da, fikzioa, Historia berau egiten duenak Bai edo Ez idatziko duen menpean dago. Dena Bai ala Ez idazteko ahalmena dutenen araberakoa da. Edonork ezin dezake Historia idatzi. Historia berau idazteko ahalmena dutenen adostasunaren produktua da. Eta begi-bistakoa da idazteko ahalmena esku batzuetatik beste esku batzuetara pasatzen denean, adostasuna ere aldatzen dela. Eta halaxe pasatzen gara Baitik Ezera, eta Ezetik Baira. Eta gu hantxe: «...*gizon gehienei gertatzen zaien bezala, gehienak bizirik hiltzen baitira errugabetasunean, baietz edo ezetz besteren kontura esaten, baina kontuak norberarenak bailiran ordainduz*». Eta, bitartean, «...*lur honetako erresuma ezetza baietzaren zerbitzuan jartzeko talentua dutenena da, edo eta, ezetz baten egileak izan direnean, arin bai arin ezetz hura ezabatu eta baietz bat jartzen dutenena*». Tira, ez da beste askok ez dakiten gauza, baina inork ez du hori azaltzeko hau bezalako arte obrarik egin.

Horretaz aparte, *Lisboako Setioaren Historia* honek sormen literarioari buruzko ohar jakingarriak eskaintzen ditu –ikusi

denez, idazlearen betiko kezka bat-, agian ondorengo esaldi honetan laburbil litezkeenak: hitzak, hitz guztiak, airean dira, hartu eta erabiliko dituenaren zain. Hori dela eta, José Saramagok ederki erakusten digu bere hitzarekiko ardura noraino iristen zen. Berak aitortzen zuen bezala, hitzaren atzean usnaka ari zen ehiza-zakurra zen, eta hitzaren atzean ibiltze horretan, denetarikoa aleak harrapatu zituen. Horregatik, Portugaleko herri-literaturako esaerek, hala idazle klasikoek nola Europako, Portugaleko zein mundu guztiko tradizio modernoaren erreferentziek, Bibliako aipuek eta Koraneko *surek*, horiek guztiek leku bat aurkitzen dute haren prosaren barruan, ez aipu bereizien antzera, baizik eta haren prosa labainkor eta jorian txertaturik. Testuartekotasun aberats hau dela-eta nazioarteko kritikak agurtu zuen liburu hau, bere garaian, postmodernismo literarioaren adibiderik gorena bezala.

Lisboako Setioaren Historiak badu, gainera –Saramagoren liburu gehienek bezala–, maitasun istorio bat –edo agian bi, funtsean bakarra diren arren, edo agian, horregatik, maitasun istorio guztiak–, eta badu gauza guztien gainean ipintzen zuen ukitu ironikoa. Eta badu, baita ere, Lisboa hiria jendaurrean aurkeztu nahia; *Lisboako Setioaren Historia* Lisboa ezagutzeko gonbit bat da, baita ere, hainbeste non ezagutzen ez duenari ongi etorriko baitzaio hiri hartako planoa eskuratzea, Raimundo Silvaren, Maria Sararen, gurutzatuen eta mairuen, Mogueimeren eta Ouroanaren joan-etorrien nondik norakoa behar bezala segitu ahal izateko.

Eta, azkenik, liburu honek, egile honen beraren guztiek bezala, badu gogoetarako eta gozamenerako beste makina bat zoko ezkutu eta harrigarri ere. Norbera testu trinkoak exigitzen duen arreta emateko prest egotea dela baldintza bakarra.

Lisboako Setioaren Historia euskaraz. Hogei urte geroago.

Kasualitateei, zorteari eta konplizitateei esker, trabak eta zailtasunak eduki zituen bidea eginez, José Saramago bera etorri zen Bilbora *Lisboako Setioaren Historia* aurkeztera, Nobel saria jaso berri. 1999. urtea zen. Ez da ohikoa Nobel saridun batek bere nobela baten euskarazko itzulpena pertsonalki aurkeztea, ez horixe, eta hori dela-eta, ekitaldi hark, Bidebarrieta Liburutegian gauzatu zenak, osagarri guztiak zeuzkan euskal itzulpengintzaren historian mugarri bihurtzeko. Hala izan zen neurri batean, eta beharbada horri zor dio liburuak bigarren edizio hau, beste edozeri baino gehiago. Harrezkero ez da harren liburuen beste itzulpenik egin euskarara. Itzultzaile honen iritziz, liburuak oso ongi daramatza dituen urteak, hogeita hamar baino gehiago, eta ez du gaurkotasunik galdu. Beste hainbeste esan daiteke José Saramagoren gainerako nobela guztiei buruz. Hor segitzen dute, beste itzulpen baten eta beste irakurle-belaunaldi baten zain.

Jon Alonso